

Gasnatzea (molde xaharrean eta Xiberoko moldean)

B.: ardiak deitzi, ta esnia goizetan, e, eta esnia gatzatzen zen, gatzatzeko bear zen beotu, ez dakit bate nik zonbat... Itsura iten, emen e, funtsian, ni beti itsura ai izan niz, bana, hara, eta eskiaikin zautzen nin apepres nola, ta ez dakit bate nik nola, ta hoita zazpi-zortzi hein ori edo nola, heintsu ortan, itsura iten nien an.

E.: gradotan.

B.: bai, eta gatzatu.

E.: zerekin?

B.: gatxagiaikin hori, ori eta axuriak iltzen zienek gatxagia, eta atxiitzen zen gatxagia, ta gatxagia zartzen zen dilindan idortzen, hori eta ari batekin estekatuik, ta ua idortzen zelaik, haren axalaikin eta gatzatzen zen esnia, ta hua zonbaitek hua kuzi, ta hala-ala harekin bizpairu inguru oalxet (...), bana bordelesa zenak zartzen zin hua eta oialezko xakuño at iten zin, lau kantoneko xakuño at, aen barnian zarri ua, ta geo hua eta olaxe zarri bilduik puxka at, ta puxiño at iten baitzen dremen dena, hua kallataazi ta esniai hua barreatu, ta hala artzen zin, hala iten zin. Beste atzuk, erran dena, hola, axal ua bera, ala-ala, kusi ut nik an artzaina ol-ola eta arekin inguru bat in, edo biga edo puxkat tinkatu, eta are, ala gatzatzen, na bestenez ni beti han hola oial... Oialezko xakuño aten barnean ta esnia artan kallataazi ta ua esnian zartzen, ta oren bat bezala, oren bat jeneralian, ba iten zin eta kallatatzen, ta gero hua autsi eta untsa, in aala untsa xeatu, ta ez zin berriz... Ez zen bigarren aldian berotzen, eh! bildu ta xortxia ta xortxapekoa, xortxapekoa zarri, eta bertziain gainian, ta xortxa, ta harat atea gasna ta moda zaarrian bear da xeatu berriz, in aala untsa xeatu, ta geo tinkatu, tinkatu ein bat, ta gero moda zaarrian gorritu bear du gasnak, su bat ederra in, ta in aala su bizia, bear du fite gorritu, ez suiain ondoan egon antxe eta, baizu, berotuik gasna, pollito ta hobeki, azala mehio inen da su bizian, beala brrrra, ta pinddarra xe-xe-xeia, ta bear du in aala fite, ta gorritu gasna, ta gorritu-ta aalaz fite despeitu re, eta baizu, gasnak asi ta finitu artio in aala fite, hobe du itia, ah ba.

E.: itzulikatuz gasna?

B.: ba, artetan itzuli bai, eta ba, tinkatzian, tinkatzian, ta gero gorritu-ta bear du tinkatu ein bat, geo an ez baitzien gasna haundiak, eta ba errazu, ni re esku ttipia inik e, bana aiseo zen beti gasna ttipiak tinkatzeko, ah banan denak gorritzen zien, eh! Ez zen hemen geo, hemen ez zen Xubeako molde ori, ta hori... Hori bietan berotzen da ori, ta bigarren aldian hor oita emezortzi itzuli ori ene ustez iten da ori.

E.: bigarren aldian?

B.: bigarren aldian eta leenik gatzatzeko, ta gero eta oai eta xortxian zartzeko edo xortxian edo moletan edo oitan, ta ez da xeatzen, dremen dena iten dute zonbaitek, bena gutti, arrunt guti, hartu ta pezaka ori, sartu ta geo oai anitzek baduzte, ba denek kasik, eta baizu, preza tinkatzeko, moletan zarri, ta molet aen barnian zartze unte oial bat, eta arat bota eta hori matoina, ta puxka at zapatu eskuz, ta are prezan zartzen, bat bestaian gainian.

E.: gorritu gabe.

B.: ah ba, ez dute gorritzen, ja, ja, ja, ez, ez, ta tinkatzen dira iziari untsa, biziki untsa tinkatzen dia, ta untsa egoiten, alo, gasnak.

E.: molde xaarrian zenbat kiloko gasnak iten zintuen?

B.: ah, to aldi bat in dut, ori anitzek ez zaaten... Ez daate sinesten e, hamar kilokoa in dut aldi bat, hamar kilokoa, eta ori emen.

E.: zenbat esnekin?

B.: po ori ez dakit bate zonbat esne, ez dakit ta zonbat, bost sei... Tenore atez iten da bost pintaikin erten dute ta eginik, bearba geixot, eta bena moyenne-a lau kilo inguru ori, jeneralian, eh! Hiru-lau kilo, na iru kilo bano geio... Emen asteko, eh, han ttipio ba, an ttipio bana bai an ez zen ardi deiztekoik biziki, gutti, gutti.

E.: ze adinetan hasi zira gasna-itzen zu?

B.: ni eta hamairu urtetan, hamairu urtetan, ba, han kusia nola iten zen, ta gero... Geo ara, niaur asi gero, an baizu, beharra bada, bearra, eh? Bearra, hara, erran, to, are, ardiekin, bear zen ardi deiztekoekin goiti, ta gero, ah zonbait aldi ez nintzan ez aisa arribatzen, berdin zonbait aldi ez nin aski berotzen e, ta ez bazen aski berotzen, nekexo... Nekezoo zen biltzeko, ta tinkatzeko, ta... Ta zonbait aldi gertatzen zitzaan ez aski bero ta berdin denbora otza re, baizu denboa txarra, ta denboa freskoa, ta esnia ozten, fite, ta ordian ez da ain aisa, eta biltzeko, ta tinkatzeko, ta aldiz heiño bat berotia balin bada. Bestenez untsa iteko bear luke ez sobera bero, ta ez hotz, ola, bien artian, epel-epela. Ez zen ez mendian nausia egoiten sekula.

E.: bakarrik ikasi uzu, bakar-bakarrik?

B.: kusia bainin nola iten zen, ta ah geo ba, ba, bai, bai. Ja, ja, ez zen semia... Nausia, ja, ja, jiten. Ah, astekoa kartzen zuten beiti, astoan kartzen zuten, xixtoak bazien, olaxeko atzu, olaxet apepres, hola eta barnia zutenak, ta etan zartzen gasnak, ta asteko gasnak beiti kartzen. Ez zen han etxolan gasnaik atxiitzen iziari, ta an baitzen anitz sagu, ta sagu anitz bazen geo leen, ta pozoinik ta ez zen zartzen, geo han!

E.: egunian behin egiten zinuena gasna?

B.: bai, han ba, bai, bai, bai. Ez zen... Bah, zer zen, ez zen berroi ardi deiztekoik e berdin, baizu, berroita zombait hazten zen, urrixe ta ahari, ta oai axuriak eta hor, hamar bat kilotan edo olaxe zuelaik, xikitatzen zien, bizitakoak, axurik obenetaik, aariak xikitatzen zien, ta geo aharitako uzten ek, han erten da zikiroak, zikiroak, hek ba, erran baitut... Erran baitut Andre dena Maria egunian kentzen ziela, lau urtetan, bon, ek axurian... Axurian utziak dira ek, eta... Luzaiden iten zen aharitak, alo, ahari multxo at saltzen zen, ardi multxo at, zombait aldiz e errefusak, hautak ere zombait aldi berdin, ta olaxet, ola, gasna puxka atzu iten zien, ta etxeko bano geixoño berdin, saltzen e zombaitetaik eta, sosain iteko, sosa bear baitzen zeit egin, ta hola iten zen, ardi multxo at salduz, urte geien, geienetsetan ardi multxo at saltzen zen, ta ahariak, eta...

Garaziko euskararen hizkuntza aldakortasuna

Alexander Artzelus Muxika

Zuzendariak: Iñaki Camino Lertxundi Juan Manuel Hernández-Campoy

Doktorego-tesia Gasteiz, 2021

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologia doktorego-programa

Letren Fakultatea

UPV-EHU

Lan honen karietara, Eleketan agertzen diren lekukotasun zati batzuen transkribapen lan bat egin du.

Hitz osoak idazteko orde, ahoskerari lotu zaio egin ahala